


# GABON KANTAK



## OLENTZERO

OLENTZERO JOAN ZAIGU

MENDIRA LANERA

INTENTZIOAREKIN

IKATZ EGITERA.

ADITU DUENIAN

JESUS JAIO DELA

LASTERKA ETORRI DA

BERRI EMATERA.

HORRA! HORRA!

GURE OLENTZERO!

PIPA HORTZETAN DUELA

ESERITA DAGO.

KAPOIAK ERE BADITU

ARRAUTZATXUAKIN

BIHAR MERIENDATZEKO

BOTILA ARDOAKIN. (BIS)

OLENTZERO BURU HANDIA

ENTENDIMENTUZ JANTZIA

BART ARRATSEAN EDAN OMEN DU

HAMAR ARROBAKO ZAHAGIA.

HAU URDE TRIPA HAUNDIA

TRALARALALA TRALARALALA

HAU URDE TRIPA HAUNDIA

TRALARALALA TRALARALALA



**Laskorain**  
ikastola

## BIZAR ZURI

GABONAK, GABONAK, HAU ZORIONA,

BERTSOTAN ARI ZAIGU GAUR

AITONA,

JA, JA, JA BARREZKA DAGO AMONA.

BIZAR ZURI, BIZAR ZURI,

MENDI GAINAK, ZURI, ZURI

ZORIONAK, ZORIONAK,

BERTAN DITUGU GABONAK.

TXIMINI ZULOTIK NORBAIT SARTU DA

MUTUR BELTZ, BEGI GORRI, AIBALIO,

OLENTZERO DELA, HALAXE DIO.

BIZAR ZURI...

## DIN DAN DON

DIN DAN DON, DIN DAN DON!

EGUBERRION!

ZORION, ZORION!

GABONAK, DIN DAN DON!

DIN DAN DON, DIN DAN DON!

EGUBERRION!

ZORION, ZORION, GABONAK GABONI!

IKASTOLAKO HAURTZOAK GARA

ETA POZ-POZIKAN IBILTZEN GARA

(BIS)

### OLENTZERO ETA ASTOA

OLENTZERO TA ASTOA BASORA JOAN

DIRA,

BIDEAN GALDU ETA HASERRETU

DIRA.(BI)

OLENTZEROK ASTOAI BELARRITIK

TIRA

ASTOAK OLENTZEROI PRAKETATIK

TIRA.(BI)

TIRA TA TIRA ELKARRENAK DIRA

TIRA TA TIRA KONPONDUKO DIRA.

OLENTZERO TA ASTOA BASORA JOAN

DIRA,

BIDEAN GALDU ETA HASERRETU

DIRA.(BI)

OLENTZEROK ASTOAI BUZTANETIK

TIRA

ASTOAK OLENTZEROI GERRIKOTIK

TIRA.(BI)

TIRA TA TIRA ELKARRENAK DIRA

TIRA TA TIRA KONPONDUKO DIRA.

OLENTZERO TA ASTOA BASORA JOAN

DIRA,

BIDEAN GALDU ETA HASERRETU

DIRA (4)

### KAX KAX ATEAN

KAX, KAX, KAX ATEAN

NOR DABIL ETXEAN?

IKUSI MAKUSI

NOR NAIZEN IKUSI

PRAKA ZABALAK, ATORRA URDINA,

AI ENE! EZ DAKIT EZER EZ, EZ, EZ

AI ENE! KONTATU MESEDEZ

MUTUR ZIKINA, TXAPELA BELTZA.

AI ENE! EZ DAKIT EZER EZ, EZ, EZ,

AI ENE! KONTATU MESEDEZ.

PIPA AHOAN, ARDIA BERTAN,

BAI, BAI, BAI, LEHEN ORAIN ETA GERO

ZU ZARA GURE OLENTZERO.

### HATOR.HATOR

HATOR, HATOR, MUTIL ETXERA

GAZTAINAK XIMELAK JATERA,

GABON GAUA OSPATUTZEKO

AITAREN ETA AMAREN ONDOAN.

IKUSIKO DUT AITA BARREZKA

AMAREN POZ ETA ATSEGINEZ

ERAGIOK, MUTIL AURREKO DANBOLIN

HORRI.

GAZTAINAK ERRE ARTEAN,

GAZTAINAK ERRE ARTEAN,

TXIPLI, TXAPLA, PUM!

GABON GAUA POZIK IGARO DEZAGUN.